



Ikasketa Plana

46/2009 Dekretuan xedatu bezala, araubide bereziko hizkuntza-ikasketak Euskal Autonomi Erkidegoan jartzen dira eta, aldi berean, oinarrizkoa, tartekoa, aurreratua eta gaitasun maila curriculumak ezartzen da. Euskadiko Hizkuntza Eskola Ofizialak helduentzat hizkuntzen irakaskuntza eskaintzen dute eta Eusko Jaurlaritzaren menpe dauden zentro publikoak dira.

Oinarrizko Maila (A2), Tarteko Maila (B1), Goi Maila (B2) eta Gaitasun Maila (C1) ematen dira, Hizkuntzen Europako Erreferentzi Markoan (HEEM) ezarritako mailen arabera.

Ikasketa motak

- **Ofiziala:** [semipresentziala](#) eta aurrez aurrekoa, ikaslea klaseetara joaten da eta ikasturteka azterketak egin ditzake dagozkion deialdietan.

- **Librea:** ikaslea ez da klaseetara joaten eta maila ezberdinetako ziurtapen frogetara soilik aurkezten da. Ez dago deialdi mugarik.

Ezin daiteke hizkuntza baterako aldi berean matrikula ofiziala eta librea izan, ikasturte batean.

Ziurtagiriak

Maila edo ziklo bakoitzaren bukaeran ezarritako frogak gainditzeak dagokion ziurtagiri akademikoa ematen du:

- **Oinarrizko Mailako Ziurtagiria (A2)**
- **Tarteko Mailako Ziurtagiria (B1)**
- **Maila Aurreratuko Ziurtagiria (B2)**
- **Gaitasun Mailako Ziurtagiria (C1)**

Ziurtagiri horiek ofizialak dira bai Autonomia Erkidegoan bai Estatu osoan.

Sarrera

Hizkuntza Eskola Ofizialetan ikasi ahal izateko, ezinbestekoa da hamasei urte beteta edukitzea ikasten hasten den urtean. Ikasten hasitako urtean hamalau edo hamabost urte dituztenek ere ikas dezakete, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan lehen hizkuntza gisa ikasitakoa ez den hizkuntza bat ikasi nahi badute.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza titulua dutenak Oinarrizko Mailan bigarren ikasturtean (A2) has daitezke, DBHn ikasitako atzerriko lehen hizkuntzan.

Era berean, Batxiler-titulua dutenak zuzenean has daitezke, nahi badute, batxilergoan ikasitako atzerriko lehen hizkuntzan Tarteko Mailako lehen ikasturtean. Tarteko mailaren lehen ikasturtera modu horretan sartzeak ez du esan nahi, inola ere, aurreko ikasturteak gainditu direnik, eta beraz, ez du eskubiderik ematen Oinarrizko Mailaren ziurtagiria eskuratzeko.



Aurreko ikasketa-plana	Indarreko ikasketa-plana
1.maila	Oinarrizko Maila 1 (A1)
2.maila	Oinarrizko Maila 2 (A2) Ziurtagiria <u>A2</u>
3.maila edo Oinarrizko Zikloa Ziurtagiria: Oinarrizko Zikloa 4. maila	Tarteko Maila (B1) Ziurtagiria <u>B1</u>
5.maila edo Goi Zikloa	Maila Aurreratua (B2)
Ziurtagiria: Gaitasun maila	Ziurtagiria <u>B2</u>

Gaitasun Maila
Ziurtagiria C1

*Hizkuntza guztietarako, Euskara izan ezik

Euskararen kasuan (64/2008 Dekretua, apirilaren 8koa eta 48/2009 Dekretua, otsailaren 24koa):

5.maila edo Goi Zikloa Gaitasun mailako ziurtagiria	Gaitasun Maila <u>Ziurtagiria C1</u>
--	---

MAILA ETA KURTSOA	NOR MATRIKULATU DAITEKE
Oinarrizko Maila 1 (A1)	Hizkuntza horren ezagutzarik gabeko ikasleak eta A1 errepikatu behar dutenak.
Oinarrizko Maila 2 (A2)	A1 gainditu dutenak eta A2 errepikatu behar dutenak.
Tarteko Maila 1 (B1.1)	A2 gainditu dutenak eta B1.1 errepikatu behar dutenak.
Tarteko Maila 2 (B1.2)	B1.1 gainditu dutenak eta B1.2 errepikatu behar dutenak.
Maila Aurreratua (B2)	B1.2 gainditu dutenak eta B2 errepikatu behar dutenak.
Gaitasun Maila (C1)	B2 gainditu dutenak eta C1 errepikatu behar dutenak.
Lehenengoz matrikulatu nahi duen ikasleak ez dauka derrigorrez A1 mailan matrikulatu beharrik. Bere trebetasunari dagokion mailan matrikulatu daiteke <i>maila-proba</i> eginez.	